

## PLAZERATU

*Egilea: "Argia"*

Begiak nekatuta zeuzkaten hirurek. Hiru ordu zeramatzaten udaletxeko batzar-gela hartan dagoeneko eta fluoreszenteen argipean irakurtzea nekosoan egiten ari zitzairen, paper zuriak isla gogorregia egiten baitzuen. Folio mordoa zegoen mahai gainean multzotan sailkatuta: *"Poesia"*, *"Narrazioa"*, *"Posibleak"*, *"Baztertuak"*... Gutxienez hogeita hamar lan irakurri eta baloratu zituzten jada, baina beste horrenbeste geratzen zitzaizkien oraindik. Literatur lehiaketako epaile izatea proposatu zietenean, gogotsu onartu zuten Robertok, Norak eta Elenak, baina horren aspergarria izango zela jakin izan balute, erantzuna ezberdina izango litzateke zalantzarik gabe. Gaia erotismoa izanik gainera, prozesu osoan zehar kuleroak busti bustita izatea espero zuten...

- *Ze txarra narrazio hau!* – hautsi zuen isiltasuna Robertok- *kanpin batean elkar masturbatzen duten neskei buruzko beste istorio bat irakurtzen badut, balkoitik behera botako dut neure burua!*

- *Ea, ekarri hurrengo narrazioa ...* – hasperen egin zuen Norak, etsipenez.

*"Narrazioak"* multzora luzatu zuen eskua Robertok, hurrengo lanaren hiru kopiak epaimahaikideen artean banatzeko. Baina zerbaitek bere arreta bereganatu zuen; DIN-A4 orrien gainean gutun-azal handi bat zegoen, zabaldu gabe oraindik. Gainerako lanak ere gutunen barruan iristen ziren baina epaileei orriak bakarrik ematen zitzaizkien, gutun-azalak botata.

- *Arraroa da... beharbada idazkariari ahaztu egin zaio irekitzea edo besteen tartean ez du ikusi* – esan zuen Robertok.

Gutun-azala eskutan hartu eta aztertzen hasi ziren hirurak. Ez zegoen ezer berezirik azalean, ez boligrafo markarik, ez zigilurik, ez helbiderik. Zuri-zuria zen, gutun-azal normal bat. Elkarri begiratu zioten jakinminez; Robertok irribarre etsi bat egin eta bere behatzak gutunaren irekidurara zuzendu zituen, astiro-astiro. *“Ea gutxienez zabaltzeak merezi izan duen...”*. Gutunetik hiru orri atera zituen, gainerakoek baino kolore horixkagoa zutenak. Lasai hartu zuten arnasa epaileek, eta orriak banatu ostean, bakoitza bere tokian eseri zen berriro irakurtzen jarraitzeko.

Baina Roberto, arrazoiren batengatik, ez zen eroso sentitzen; folio haiek usain berezi bat zuten, irakurketan zentratzen uzten ez zion usain bat. Bat-batean, axola zitzaion bakarra Norak gutuna ikustera hurbildutakoan eskuan egin zion laztana zen. Begiak paperetik altxatu eta neskari begira geratu zen une batez; Norak ere deseroso zegoela zirudien eta bekokia izerdituta nabaritzen zitzaion, maiatzeko beroak oraindik eragiten ez duen izerdiz bustita. Robertok narrazioa irakurtzeko ahaleginak egin zituen, burua jaisteko ahaleginak, papereko letra saltsa hari zentzua bilatzeko alferrikako saiakerak, baina ezin zuen. Usain hura... ezinegonaz ezkutatzeko ur apur bat edatea erabaki zuen. Aulkitik altxatu eta mahai ertzeko pitxerra eta edalontzia hartzera zuzendu zen urduri, hankartean sentitzen zituen kilimak disimulatu nahian. Baina pitxerrera eskua luzatzearekin batera, ia oharkabea, Elenak aurea hartu zion. Robertoren parean jarri eta begietara begira, pitxerretik ura isurtzen hasi zen edalontzira, besoa altxatuta, oso, oso altutik; erdia baino gehiago kanpora bota zuen eta urak paperak busti zituen leunki. Elenaren begi berdeak ez ziren une batez ere gizonaren

gorputzetik aldentzen, betaurrekoen ostetik aztertzen zuten Roberto, goitik behera biluztu nahiko balute bezala. Ile motza zeukan Elenak, gorrixka, eta ezpain lodi-lodiak zeukan aho txikirako. Mihia atera zuen eta ezpain gorriak busti zituen goxoki. Gizonak ezin zuen ikusten ari zena sinetsi, baina gerripeko laguntxoak sinetsi zuen antza, prakak estutzen hasi baitzitzaizkion hankartean. Ordura arte ez zen ohartu Elenaren edertasunaren magnetismoaz, baina lehen argala eta normaltxoa iruditzen zitzaion emakumeak izugarrizko indar sexuala zuela iruditzen zitzaion bat-batean. Morbo basati bat zuen, biluztuz gero suge bat bezain labainkorra eta hipnotikoa izateko itxura hartzen zion Robertok. Elenak pitxerreko ura isurtzen jarraitzen zuen eta dagoeneko udaletxeko mahai handiak laku irristakor bat zirudien; mahai ertzetik tantak lurrera erortzen ziren eta paper guztietako testu beltzek akuarelazko marrazki tristen antza hartu zuten. Aireko usain berezi hark Robertoren zentzumen denak erotzen zituen, baina kontrola guztiz galdu aurretik, Nora zer pentsatzen ote zebilen galdetu zion bere buruari. Norbaitek kosk egin zion orduan lepoan, atzealdetik. Noraren titiak sumatu zituen bizkarrean, handi eta gogor, haren mihi beroak ero baten moduan sama zurrupatzen zion bitartean. Berrogei urteko gizon hura dena kontrolpean edukitzera ohituta zegoen, eta ez zuen ulertzen bi neska gazte haiengan sortu zuen bat-bateko desio hura. Baina ez zen arrazoiak bilatzen hasi.

Robertok eskutik kendu zion pitxerra Elenari, goxo-goxo, eta begietara begiratzen zion bitartean, besoa altxatu eta ura neskaren titietara erortzen utzi zuen. Elenaren titi txiki baina tenteak laster azaleratu ziren alkandora urdin argiaren azpitik; ez zeraman bularretakorik eta titiburu arrosak garbi-garbi nabaritzen ziren. Neskak hasperen egin zuen eta gorputz osoak dar-dar egin zion

plazerez. Robertok eskua zabal-zabalik, sabela eta titi bustiak laztandu zizkion gogotsu. Beste eskuarekin Nora erakarri zuen gerritik helduta. Neskaren begi ilunek gosez begiratzen zioten gizonari; ez zegoen lehengo Nora lotsatiaren eta zentzudunaren arrastorik, ezpainen artetik arrosa koloreko mihi lodia ateratzen zuen etengabe mugituz, ur eske dagoen animala egarrituaren gisara. Robertok Noraren gerritik ipurdi biribilera jaitsi zuen eskua eta indarrez heldu zion, eskatzen zion hori laster emango ziola adieraziz bezala. Elenak bere soin bustia Robertorengana urreratu zuen eta musu bero eta umel bat eman zion ezpainetan. Hirurek sentitu zuten musu haren umeltasuna euren gorputzeko zulo guztietan. Robertok eta Elenak elkarren lepoak eta ezpainak listuz bete bitartean, Nora makurtuz joan zen eta bere lagunaren prakak askatzeari ekin zion: Elenarenak lehenik, eta Robertorenak ondoren. Bakoitzari laztan bat egin zion sexuan eta suzko hotzikarek zeharkatu zituzten euren barruko arropak.

Norak berriro gorantz egin zuen, esku bat Robertoren alkandora azpitik labainduz eta bestea Elenaren kuleroen barrutik. Elenari barretxo batek ihes egin zion eta arnasestuak areagotzen zitzaizkion bitartean, berak ere atzamarrak Noraren titietara zuzendu zituen. Hirurak zeuden tente, eskuekin elkarren gorputzean narraziorik erotikoenak idatzi nahiko balute bezala. Robertok bi nesken titi-buru tenteetara begiratze hutsarekin zakila sutan sentitzen zuen, eta entzun izan balute bezala, Norak eta Elenak gizonari atzerantz bultza egin eta mahai bustiaren gainean etzan zuten. Ur hotzak Robertoren zentzumenak are gehiago aztoratu zituen, baina hain bero zeuzkan zakila eta ipurdia, non ia ez baitzion eragin. Nora alkandora askatzen hasi zitzaion irribarre maltzurrez eta sabelean kilimak egiten zizkion uretan bustitako behatz bizkorrekin. Elenak,

bitartean, galtzontziloak erantzi zizkion eta Ermuko udaletxeko balkoitik behera bota zituen, tiragoma bat bailiran. Bi neskek elkarri begiratu eta jolasari ekin zioten: Elena ilegorria mahaiaren altuerara makurtu zen eta Robertoren hanka artean burua sartuta, barrabilak miazkatzen hasi zitzaion. Bitartean, Nora bera ere gerritik behera biluztu eta mahai handira igo zen astiro astiro, lau hankatan, katu-mugimenduak imitatuz etzanda zegoen Robertoren inguruan. Gizonak begiratu egin nahi zion, baina begiak ixten zitzaizkion Elenak egiten zizkion kili-kilien ondorioz. Orduan Norak Robertoren aurpegi gainean hanka-zabalik jesartzeko keinua egin zuen. Elena zegoen tokira begira jarri zen, Robertoren hankei begira. Guztiz eseri ez zenez, tarte bikaina uzten zien gizonaren mihiari eta ezpainei bere alua eta uzkia dastatzeko. Robertok esku biak neskaren ipurdian jarri eta, zoro baten pare, klitoria laztantzen hasi zitzaion ahoarekin. Bustia sentitzen zuen mahaia, bustia hankarte eta bustia ahoa, Noraren alua dagoeneko ur eginda zegoelako. Neskak bitartean bere titiak ukitzen zituen eta hasperen egiten zuen gozamenez. Klitoria zizare bat bezala labaintzen zen Robertoren miazkada bakoitzaren azpian, eta horrek sekula izan gabeko erekzio bat eragin zion. Elenak barrabilak eta uzkia ondo zurrupatu ostean, zakilari heldu zion eta gogoz astintzen hasi zen gora eta behera, eskuarekin lehenik eta ahoarekin gero; ezpainak irristatu egiten zitzaizkion zakilaren azal finean eta Roberto gozamenez uzkurtzen zen Noraren hankartera hasperen eginaz. Ohartzerako, hirurak zeuden guztiz biluztuta eta begirada galduta.

Elenak orduan, mahai luzean geratzen ziren paper multzo bustiak baztertu zituen indarrez eta guztia bota zuen lurrera: ura, boligrafoak, koadernoak... denak erori ziren udaletxeko egurrezko zoru gainera. Beste biek arretaz jarraitzen zituzten

ilegorriaren mugimenduak; bera ere mahaira igo zen orduan, eta hasieran altzariak balantza moduko bat egin bazuen ere, ondo eutsi zion hiruren pisuari. Neska hankak zabal-zabalik eseri zen Nora eta Robertori begira, eta bere gorputz argala atzerantz bota zuen hanka arteko altxor depilatua bistan utziz. Atzamarrekin titi-buruei atximurka hasi zen eta bere alura hurreratzeko gonbite argia egin zien besteei. Norak gonbitea onartu eta lau hankan, lizun-lizun hurbildu zen Elenarengana; bi neskek begietara begiratu zioten elkarri eta Norak, katutxo baten begirada samurra eskaini ostean, klitoria miazkatu zion ilegorriari, katutxo batek esnea edango lukeen moduan hain zuzen. Noraren mihi punta luzeak plazerezko hotzikarak eragin zizkion Elenari gorputz osoan zehar, titiak zeharkatu eta bizkarrezurreko azken muinera iritsi arte. Roberto izerditan zegoen; nesken gozamen aurpegiei begiratze hutsak erotu egiten zuen, eta gainera Noraren ipurdi biribil eta leuna zeukan pare-parean berari deika. Atzetik gerturatu zitzaion eta ipurmasailak ireki zizkion eskuekin Norari; burua makurtu eta uzkia jaten hasi zitzaion, pixkanaka prestatuz, giharrek lasaitu eta zulo txoa ondo bustita uzteko. Plazerezko oihuak eta hasperenak batzar-gela osoan zabaldu ziren. Norak mihia baginan sartzen zion Elenari eta ondoren zirkuluak marrazten zizkion klitorian etengabe; ilegorriak eskuak Noraren buruan zeuzkan, bere mugimenduak gidatzeko. Atzamarrak honen ile beltzean korapilatzen zituen plazerezko dardara bakoitzean eta oihu egiten zuen: *“Ai amaaa!”*. Robertok kolpeak ematen zizkion Norari izterretan, eta halako batean zakila sartu zion, goxo baina sakon, ipurditik. Neskari begirada ere lausotu egin zitzaion gozamenez eta une batzuetan zehar ezin izan zuen Elenaren alua miazkatzen jarraitu arnasa hartzea kostatzen zitzaiolako. Atzamarrekin laztantzen jarraitu zuen Elenaren perlatxoa, uzkitik sentitzen zuen presioa ordura arte imajinatu

gabeko plazer bilakatzen zen bitartean. Elena blai eginda zegoen, orgasmora ailegatzeko puntuan; epeltasun goxo bat sentitzen zuen gorputz osoan eta bekokitik izerdi tantak erortzen zitzaizkion bularretara mugimendu bakoitzean. Roberto ere aieneka hasi zen, bere burua egoera hartan aurkitzeak eta zakila Noraren ipurdian barrena sartzen ikusteak ematen zion morbo ikaragarriak eraginda. Hirurak zeuden puntu-puntuan, pentsamenduak lainotzen hasita, ezinegonez eztanda egiteko prest udaletxeko batzar-gelako mahai gainean. Baina Elena baztertu egin zen une hartan. Bere alua eta Noraren ahoa urrundu egin ziren bata bestearengandik, bien artean listuz eta isurkariz osatutako hari fin bat utziz.

Elena mahaitik jaitsi eta udaletxeko balkoira zuzendu zen. Arratsaldeko 6ak ziren eta plazan jendea zebilen batetik bestera. Ilegorriak balkoia guztiz zabaldu zuen eta bere gorputz biluzia erakutsi zion herriari. Ondoren, atzera begiratu eta hurreratzeko keinua egin zien Nora eta Robertori. Honek zakila astiro atera zuen Noraren barrutik, betirako hantxe geratu nahiko balu bezala, eta hasperen egin zuten biek hustasun sentsazio horren zaporea gozatuz. Mahaitik aldendu eta Elenarengana joan ziren, berriro elkar laztantzen eta musukatzen hasteko; berdin zitzaien jendea eta balkoiko harri hotza. Hain bero zeuden, non Elena segituan etzan baitzen balkoian luze-luze eta keinu bat egin zion Robertori... emakumeak behatzak aluan sartu eta ondoren ahora eramane zituen. Zurrupatu eta miazkatu egin zituen begiak itxita, lehentxeago gizonaren zakilarekin egin zuen bezala. Robertoren erekzioa berriro gorengora iritsi zen eta denborarik galdu gabe, izterretatik heldu zion Elenari, honek hankekin bere gerria ingura zezan, eta indarrez sartu zion zakila aluan. Neskak oihu ozen bat jaurti zuen airera,

Robertoren zakilaren formak sentitzen zituen barrura eta kanpora mugitzen, eta bere barrabilek ipurdia kolpatzen zioten mugimendu bakoitzean; sekula ez zen hain bizirik sentitu. Nora begira zeukaten, bere klitoria ukitzen eta berriro lehengo martxa hartzen... begiratzearekin soilik, ahoa, alua eta zulo guztiak urez betetzen zitzaizkion. Elenaren aho gainean esertzea erabaki zuen, hainbeste gustatzen zitzaion mihiaren hezetasuna hankartean sentitzea... Robertori begira jesarri zen eta Elenak ekin zion jolasari Noraren azpian. Mingaina elektrizitateak mugituta bezala astintzen hasi zen: gora beheraka, ezker eskuin, baginan barrura.. musuak ere eman zizkion gero bere lagunaren aluari. Norak bitartean, bere azpikoaren titi-buruak ukitzen ziharduen, kutxa gotor bateko erruletatxoari biraka balebil bezala, klabea asmatu eta barruan zegoena atera ahal izateko. Roberto Elenaren hasperen itoekin eta aurrez aurre zuen Noraren gozamen aurpegiarekin zerura iristeko puntuan zegoen. Ez zuen sekula pentsatuko gorputzak horrenbestera ino emango zionik, ez baitzen oraindik nekatuta sentitzen. Zakila sutan zuen, bero-bero, alutxo depilatua gero eta estuago ari zen bihurtzen bere inguruan eta oso gutxi falta zitzaion berari ere epeltasunezko urakan bati esnatzen uzteko. Noraren bularrekin eta erortzen zitzaion ile beltz luzearekin jolasten zuen esku batekin, bestearekin Elena ipurditik eusten zuen bitartean. Norak arnasa bizkortu zuen eta Elenak sudurrekin egiten zituen plazerezko hasperenak, mihia lanpetuta zuen-eta. Robertok beste apur bat eutsi behar zion, apur bat baino ez... Elena modu basatian mugitzen hasi zen, gozamenez uzkurtzeko prest, ahoa gero eta eroago mugituz eta Noraren isurkari guztiak masailetatik behera erortzen zitzaizkiola. Norak begiak itxita zeuzkan jada eta hankek dar-dar egiten zioten, ahoa zabaldu zuen bekainak beherantz okertu ahala eta oihuka hasi zen. Iritsi zen unea: Robertok beste lau kolpe gogor

eman zituen Elenaren barruan eta bien garrasiek Norarenekin bat egin zuten. Zakila atera zuen azken unean eta, ezkerrerantz biratuz, balkoiko barrote tartetik isuri zuen bere esnea aiene artean. Gozamenezko erreka haren ostean, sexua lasaitzen sentitu zuen, gero eta bigunago bihurtzen eskuartean, pultsazioak baretu ahala. Bere isurkaria erortzen entzun zuen udaletxe aurreko lurrera. Isuri zuten euren plazera Ermuko plazara.

Euren bizitzetako orgasmorik goxoena izan zen. Hirurak geratu ziren une batez balkoian etzanda, erdi zorabiatuta. Giharrak lasaitu ahala, odola entzun zezaketen beraien buruan barrena, hain ozen non kaleko jendearen marmarra eta harridura oihuak ere ez baitzituzten sumatzen. Roberto hormaren kontra jesarrita geratu zen, bi neskei begira; balkoia sexu-urez bustita zegoen. Baina haize leun batek musukatu zituen orduan, usainik gabeko aire garbi batek... eta hotza sentitu zuten azalean. Elkarri begira geratu ziren, elkarren biluztasuna eta egoera aztertzen... eta lotsa sentitu zuten bat-batean. Elenak *“ai ama!”* esan eta bularrak eskuekin estaliz, gela barrura jo zuen korrika. Nora gorrituta eta astiroago altxatu zen lurretik, Robertoren zakilari begiratu nahiko ez balio bezala, eta eskuekin ipurdia ezkutatuz bere erropen bila joan zen. Gizona oraindik trantzean bezala aurkitzen zen... *“baina ze kristo gertatu da?”* pentsatu zuen berekiko. Balkoitik plazara begiratu zuen eta jende andana ikusi zuen barrezka, argazkiak ateratzen, begiak estaltzen baina atzamarren artetik begira... berotasun bat sentitu zuen masailetan gora igotzen, lehentxeago gorputzeko beste atal batzuetan izandakoaren antzekoa, eta arrapaladan gelara sartu eta balkoiko atea itxi zuen. Indarrez korritu zituen errezelak. Elena alkandora bustia janzten zebilen eta Nora, oraindik biluzik, lurreko paperak astintzen ari zen erdi negarrez.

- *Zer egin behar dugu orain?- galdetu zuen malkoei eutsi ezinda – lehiaketa bertan behera utzi beharko dugu lan guztiak suntsitzeagatik!*

Lehiaketa. Guztiz ahaztuta zeukan Robertok. Galtzontziloak bilatzen ziharduen baina orduan gogoratu zen Elenak zer egin zuen eurekin... Lurreko paper bustiei begira geratu zen. Denak zeuden erdi deseginda, letrak ezabatuta, lehen itsugarria zen zurtasuna horituta... horituta? Paper multzo batera urreratu zen Roberto: folio horixka bat zegoen denen gainean. Jaso egin zuen.

- *Neskak, etorri hau ikustera.*

Gutun-azaletik ateratako orrietako bat zen. Bustita egon arren, letrak garbi-garbi zeuden, ezabatu gabe. Papera ere segituan lehortu zen Robertoren eskuartean.

- *Irakurri daitekeen bakarra da.*

- *Besterik ezean, berau izendatu beharko dugu irabazle, oso gaizki idatzita ez badago behintzat... – esan zuen Elenak – zerbaitetarako da epaileon erabakia apelaezina, ezta?*

Hirurek buruak gerturatu eta irakurtzeari ekin zioten, ganorazko narrazio bat izan zedin errezatuz.

***“Begiak nekatuta zeuzkaten hirurek...”***

Robertori irakurketan kontzentratzea kostatzen ari zitzaion. Usain hura...